

Julio Salinas

• ALAVESEKO JOKALARIA •

■ ■ ■ Julio Salinas Salamancaren kontra jokatzeko prest zegoen jada, baina ez zuen transferrik. ■ ■ ■ Igande honetan jokatu du, Espanyolen kontra. ■ ■ ■ Japoniako futbola utzi berria du, eta etxean aurkitu du taldea. ■ ■ ■ Haren ustez, Belsue, Berti eta hiruren fitxaketek eskarmentua emango diote Alavesi, eta hori oso garrantzitsua ei da, Lehen eta Bigarren A Mailaren arteko aldea handia delako.

«Igandean Alavesekin debuta egiteko irrikitan nago»



JOSEBA OLALDE

■ Anaiaren omenaldian aritu zinen Vigon. Nola ibili zinen?

Ondo. Edozein ikuslerentzat ezezaguna izan banintz, lehian zeudenen eta nire arteko aldea ez lukete nabaritu. Fisikoki ez nuen ezer arrarorik sumatu, abiadura apur bat falta zitzaidan aurrean, besterik ez.

■ Eta entrenamenduetan nabaritu al duzu aldea?

Ez. Ez da inolako eragozpenik egon. Niretzat garrantzitsuena partidua jokatea da. Talde handietan aritu naiz, eta hor gehienetan igande-asteazken-igande egutegian sartzen zara. Partiduek ematen dizute lasaitasuna.

■ Estraineko partidua etxean edo etxetik at nahiago duzu?

Etxean, dudarik gabe, zaleen beroa sentitzen duzulako eta etxetik at baino askoz aukera gehiago duzulako. Niregatik izan balitz, Sala-

mancaren kontra jokatzeko nengokeen, eta baita igandean horrenbeste maite dudan Camp Noun ere, baina japoniarrek ez didate transferrik bidali oraindik, eta ez dakit zergatik. Igandean jokatzeko irrikitan nago, entrenatzaileak hala nahi badu behintzat.

■ Zu etortzeak sortu zuen ikusmina ba al da oraindik?

Beno, nire sorpresarik handiena prentsak eginiko harrera izan zen batik bat. Dena den, hiri txikia da Gasteiz, eta jendearen maitasuna gertutik ezagutzeko parada daukazu.

■ Fitxaketa zara, beste fitxaketa bat aipatu duzu. Emaitza ona emango al

dute azken egunetako kontratazioek?

«Etxean eman behar dugu guk neurria. Espero dezagun lehengo igandeko zazpi golekin jasotzeko dugun gol kopurua beteta izatea. Baikor nago igandeko lehiari begira»

Ia dena primeran irten zitzaien, eta Lehen Mailan hori egitea oso zaila da, tentsio handiko uneak heltzen dira eta.

■ Saioan Canabalen parean ezarri zaitu entrenatzaileak. Nolako bikotea osatzen duzue?

Altuera handiko bikotea gara. Ez dakidana da golak sartuko ote ditugun (barre egiten du). Ez nuen Canabal ezagutzen, entzuna nuen izena, baina gehiagorik ez, eta Salamancaren aurkako norgehiagokan inpresio ezin hobea hartu nuen, batez ere aurrelari peto-petoa ez dela kontuan hartuta. Norbaitekin alderatzekotan, Adolfo Aldanarekin konparatuko nuke. Ea Canabalen eta bion artean golak sartzen ditugun.

■ Eragina izango al du Barzelonako 7-1ekoak?

Ez nuen partidu osoa ikusi, laburpena baizik, baina iritzia berbera litzateke. Ez dauka halako garrantzirik, Camp Noun galtzea normalizat har daitekeelako. Etxean eman behar dugu guk neurria. Espero dezagun lehengo igandeko zazpi golekin jasotzeko dugun gol kopurua beteta izatea. Espanyolen aurkako demari begira bai-korra naiz oso.

■ Bukatzeko, zer iruditzen zaizu Jon Andoni Goikoe-txearen fitxaketa Osasunarekin? Esan al daiteke Japoniako esperientziak indarberritu egin zaituztela?

(Barre egiten du). Japonian geundelarik hitz egin genuen horretaz. Futbola utzi nahi zuen Goikok, eta ez zuen Iruñetik inora mugitu nahi. Gainera, haren emaztea ez zen ohitzen hango bizimodura. Garai hartan Osasunaren eskaintza bazeukan, eta onartzeko esan nion. Goiko da beharbada Osasunak historian izan duen jokalaririk karismatikoena. Gainera, esan nion: «Lehen Mailara igoz gero, primeran. Bestela tekniko gisa jarrai dezakezu hor». Biziki pozten naiz Gokorengatik.

Xabier Fernandez
GASTEIZ

kontu kontari

'Mista afera' (eta 2)

Enekoitz Esnaola

Klausulak (I) • Mista futbolistak aldarrikatzen duen moduan, *zenbateko kontratua, halako klausula legea jartzen bada, klausulek ez dute balio handirik izango*. Izan ere, gutxi gorabehera kontratua baino hamar aldiz handiago bada klausulak, eliteko jokalarien klausula ia guztiak 1.500 milioi pezetaren azpitik egongo dira. «Horrek merkatu egingo du futbola», dio Tenerifeko presidentek, Jorge Perezek. Atzo esan bezala, futbolaren osasunaren mesederako litzateke hori.

Klausulak (II) • Mailarik goreneari ez dauden futbolistek *arnasa hartuko dute*. Izan ere, haiei nolabait ezarri egiten dizkiete klausula izugarriak; Mistak, esate baterako, irabazten zuena baino 188 aldiz klausula handiagoa zeukan. Eta horrela milaka gaztek. Askatasuna izango dute, beraz, taldea uzteko.

Kontratuak (I) • Dena den, ados egon beharrean gauden Arraterekin: «Nigatik, utikan klausulak. Hemen kontratuak baino ez luke balio beharko. Hitz sakratua da». Hala ere, Arratek badu kontraesanik, Joseba Etxeberriak, Athleticek fitxatu zuenean, kontratua baitzeukan Realarekin; dena den, ulertzekoa izan zen hura, klub guztiek egin dutelako horrelakorik. Ordea, aurrerantzean hobe klausulak ez baleude. Futbolaren mesederako, beti ez litzateke diruaz hitz egingo, eta futbolearen gizalage gehiago litzateke agian.

Kontratuak (II) • Klausularik ezean, jokalariek ez litzateke gaur egungo kontratu luze-luzeak sinatuko, bestela klubek uzta eta edukiko litzatekelako, jokalariek ospa egiteko asmoa izandakoan.

Eta harrobiak? • Ba, arriskuan, baina hor ikusiko da zenbat Arconada dauden, zenbat Zamora, zenbat Julen Guerrero... Klubek ere gehiago zaindu beharko litzateke harrobiko jokalariek. Identifikazioan irabaziko litzateke.